



Bakaldunen bezuza

—¡Ez, ez, ta ez, Inese!... ¡Ez det nai gure alabatxua orelako gezurak ziniistu-araziya azí daizunik!... Donokiko Bakaldunak igaroko dirala, ta oskiyetan bezuzak jariko dizkiyotela, ziniistu-arazi umeari? ¡Nunbait ere!... Ona ta esanekua ba-da, gurasnen sariya izango duala esayozu...

—Eta Jaun-goikua'rena ere bai erantzun zuan apal, lotarako sukaldia txukuunkez amaitu ta gertzen ari zan Inese'k.

—¡Ze Jaun-goiko, ta ze...!

Markelin'en birau izugarí batek Inese'ri nega'rez oyu-arazi ziyon:

—¡Ene Josu, Miren ta Joseba!... ¡Zein etsai gaizto da zuan, ene senar maitia?... ¡Aizkorakin ere nayago nuke etiotza, ta ez biziya aspaldi ontan zure abotik ateratzen dan izkuntza adituaz!

Ta eskuakin arpegia estalduaz, samin-negarari eman ziyon Inese gaxuak.

Oke'tua bai, bañan etzuan gogo'ra biotza Markelin'ak, eta bere emaztea ain atsekabetua ikustian, ziara arauketua gelditu zan. Egin zuan ibilaldi bal sukaldian batera ta bestera, maiz, izkutuka Inese'ri begiratuaz; ezin zuan ixilik jaraitu, etzuan nai itzik egin, eta egoera artatik alde-egitiaren-edo, ezer esan-gabe atera zan etxetik.

Lego'ra, bañan gustiz otza zegon gaba. Uriko txaidiak-ziaf aize-otzaren igesi bezela, ozliak laisterka-laisterka igarotzen ziran; bakafik Markelin guzien artetik, begiyak-bera, burua oldozkun beltzez, zama aztuna bezela biotzian zemala iroiren batzuk aufetik emaztiari eman ziyon naigabia beforoituz gaxuari ixuri-erazi zizkiyon mal-koak, inoren eta aize otzaren ardura-gabe, nora-ezian bezela, geldika-geldika zijoan.

Txaide-kurutz bat igarotzian, an inguroko etxe batetik ateratzen ziran soñu-ots eta zaratak, bertara begiyak jaso zizkiyoten. Sozialisten batzokia zan. Bertako bazkidiak, jan-edan eta zabarkeri-artian, ama-bosteko alogerai aztindua ematen ari ziran.

Etxe an ikustian, Markelin gizajoari biotza laritu ta arpegia sutu zitzaizkiyon. ¡Etxe zorigaiztokoa! Lagunak atzipetuta egin zan bazkide, bertan galdu zitun Jaun-zifresmena, lotsa-ona ta sendiko zorion-gentza. Ango erakutsiak erotuta, gau artan ere, ausardi gaiztoz, bir-aoz mintzaturik, Urtzi iraindu, emaztea atsekabetu, ta bere burua kezka-pian jafi zitun.

Oldozkun abekin, Batzoki galgari ta lagun gaizto ayek betiko lagatzia iya erabaki zuanian, txafenak bizi zirikatu zuan. ¡Zer csango zuten lagunak ori egiten ba-zuan? Gizon makal kaskartzat, oztien begiyetara itxusifuko zuten. ¡Ez, ez,—ziyon—ori beñere ez!

Ta zeraman bizieraren damu-miñak eta esamesanaren bildurak, beregan soñtu zuten gudan ekifeko txit aula bere burua arkiturik, iges, iges-egin zuan txaidiak-ziaf Batzokitik uruti... baita bere emazte ta alabatxuakin bizi zan etxetik uruti...

Geruago ta oldozkun beltzago, zebifela-zebifela, jo zuan enparantza batzaldutako batera. An txiringutz, gutarin eta zalburdiyen eten-gabeko ibiliak, ozte-pifen jun-etorriyak alaítua, eta dendetako erakustokiyen argi-aberastasunez apaindua, gustiz edera azaltzen zan, Markelin'en gogoari zirkinik eragin ezpa-ziyon ere.

Ala be'raen bañan, oarkabe, denda baten erakustoki-aurean gelditu zan, bertara begira. Ume-jostalu-denda zan. Lenbizi, begitu-afen, etzuan ardurarik beretan jafi, bañan laister an baruko ozte-saftu-irtenak eta jostalu-erosketak, konturatu zuben Bakaldun-aure-gaba zala, ta oroimen onék, ekari ziyon burua Miren bere alaba, bat-batez Mirentxu'ren oroitzak ateratzen zuela, lozoro batetik esnatzen dana bezela, bere gogoraziyo beltz saminetatik.

Bereala otu zitzyon berak ere alabatxuari jostaluak erostia; ez bañan Inese'k nai zuan eran Bakaldunak ekariyak bezela leyoko oskiyetan ipintzeko, au egitia emaztearen esanera burua makurtzea zan-eta, baizik Miren'i bere alta-amaren bezuza bezela eramateko. Alabatxuaren pozak ama alaítuko zuan atsekabe guziak aztutzerano, ta bere sendiko zorion-ortzian orduko lanuak beintzat ayenatuko ziran.

Oldozkun poz kafi abekin, bere sakelak zenbaterano zezaken ikusteko, zemazkin txindiyak ikustokiko argitan zeubatu-ondoren, saftu zan Markelin denda-barura.

Luzaroan Inese, bere alabatxua lo zegon oe-bañenian belaunbiko, otoitz sutu Jaun-goikua'ren zuzenduaz zegon, afen ta-afen, senar oke'tuaren biurteza-eskatuaz; ortarako, beren eguna zanez, bifarteko Bakaldun deunak ja'tzen zitula.

Alabatxuak ez-ezik, berak ere, Bakaldunen bezuza nai zuan, eta iristeko, jaraitu zuan bere otoitzan senara etxian sa'tzen somatuta zutindu zan arte.

Lotura bat galtzarbean zuala saftu zan gelan Markelin. Itzik atera-gabe laga zuan zeka'fena mai baten gafilan, iriki zuan leyoa, la saftu zitun lotarakuan Mirentxu'k an jarizitun oskiyak. Etzuan onek Bakaldunen bezuzik be'ar. Bere senafaren asmoa igefita, Inese'k malko garatz bat lego'rtuaz, ixil-ixilik, kontuz, laztandu zuan Bakaldunakin loak artu zuan gotzontxua. Markelin'ak lego'f-lego'f, lotura erakutsiyaz esan ziyon bitartian:

—Ara or Mirentxu'ri bere ata-amak bigar' egingo dioten bezuza.

Amak egin zuen laztanak esnatuta-edo, umetxuak erantzuna eman ziyon:

—¡Zein bezuz, aitatxo? ¡Igaro dira Bakaldunak?

Inese'k bekokian laztanduaz lo agintzen ziyon alabatxuari; Markelin, bañan, beti berean, Bakaldunen bezuzak gezufti ateratzeko zeguala, ora umetxua bat-batian oroimen samin bat duena bezela, oian zutindurik galdez asi zan:

—¡Zu gaiztoa al-zera, aitatxo?... ¡Ez e?

—¡Zer, ba, maite?— itandu zion Markelin'ak alabatxari.

—Ikastolako neskatilak esan didate, zu gaiztoa zeralako ez dutela Bakaldunak nere oskiyetan bezuzik jariko.

—Bañan aítak-amak bai.

—Nik Bakaldunak ja'tzia nai det...—Eta umeak lafi negarari eman ziyon, aitari itanduaz:

—¡Gaiztoa al-zera?

Geyago ezinda, eman ziyon Markelin'ak ere negarari, alabatxuari zesayola:

—¡Ez maite, ez naiz gaiztoa! Eta Donokitik datozen Bakaldunak zuri ere bezuza jariko dizute.

Senar-emazteak begitu batekin aitu ziran; aundiya zan beren zoriona; aundiya baita donokiyen gotzonen poza, Bakaldun deunak ziralakó Mirentxu'ren oskiyetan bezuza jariko zutenak.

TENE.



OLA TA ITXASONTZIJETARAKO
ORIJO, TRESNA TA MARGOKIJAK
INTXAURAGA'TAR P.

BARAKALDO (Bilbao)

5087'g. Urutizkiña